

Literaturak idazle handiei ere jaten ematen ez dienean

SAN FRANCISCO (AEB), 1889. Hamahiru urte besterik ez zituela Jack London idazlea (1876-1916) Hickmott ontziratze fabrikari lanean hasi zen. Egunero hamabi eta hamazortzi ordu bitartean ematen zituen lantokian, eta baldintza gogor horiekin nazkatuta, legez kanpoko ostra-bilketan hasi zen. Alderai ere ibili zen, kartzelatik pasa zen eta errearen sukarrak harrapatu zuen. Mende berria estreinatzearekin bat, London inprenta teknika berritzaileak erabiltzen hasi zen bere idazlanak merke argitaratzeko eta, hala, 25 urte zituela, literatura bizibide izatea lortu zuen.

Wallace Stevens (1879-1955) abokatu lanetan aritu zen poeta arrakastatsua izan baino lehen, baina Londonek ez bezala, zuzenbideari eutsi zion arrakasta lortu ondoren ere. Henry David Thoreau familiaren arkatx fabrikako langile izan zen –idazteko materialean aurrezteko aukera izan zuen behintzat–; Charles Dickens betun fabrika batean aritu zen; Arthur Conan Doyle oftalmologoa zen; eta Richard Wright, postaria.

Zenbait lanbide alternatiboak karrera literarioan lagundu zion. Langston Hughes-i (1902-1967), jatorri baten zerbitzari ari zela, Vachel Lindsay poetaren mahaia zerbitzatzeko egokitu zitzaion. Zoparekin batera berak idatzitako olerki sorta eman zion Lindsayri, eta



Ernest Hemingway Gurutze Gorriko anbulantzia batean, Italian, 1918an. Hainbat idazleek jardun zuen joan den mendean anbulantzia gidari lanetan, diru beharrak baino gehiago gerrak bultzatuta.

ERNEST HEMINGWAY PHOTOGRAPH COLLECTION

bere bizimodua goitik behera aldatu zen handik aurrera.

Beste zenbaitentzat inspirazio iturri izan ziren halabeharrezko lan horiek. Ostra, urre edo arazo bila ibiltzeak eragin handia izan zuen Jack Londonen obran. Eta gasolindegia batean lan egitea ziur aski lagungarri izan zen Jack Kerouacentzat *On The Road* errepide-nobela idazteko.

Idazleen “beste” lanbideetan ohikoenetakoa, harrigarria badi-rudi ere, anbulantzia gidari izatea izan zen joan den mendean. Ernest Hemingway, Dashiell Hammett, E. E. Cummings, W. Somerset Maugham, John Dos Passos eta Archibald MacLeish zaurituak garraiatzen aritu ziren, Lehen nahiz Bigarren Mundu Gerretan. Beraz, diru faltak edo inspirazio beharrak baino gehiago, gerrak eraman zituen anbulantziak gidatzera.

Aipatutako idazle guztien artean emakumerik ez dago, ez idaztea denbora osoko jarduna izateko zortea izan zutelako, soldata eta aitorpenik gabeko lanetan jardun ohi zutelako baizik. Eta sarritan

idazle izateko aukera ere ukatzen zitzairen, Brontë ahizpei bezala. Emilyk eta Annek gizonezko izenordeak asmatu zituzten lanak argitaratu ahal izateko, eta Charlottenk zurriz zituen pataten artean ezkutatu behar izaten zituen *Jane Eyre* maisulanaren eskuizkribuak. ■



Arrastoak

Gorrotoa, Hitlerren karismaren sekretua

FELLOWSHIP OF THE MINDS



LAURENCE REES historialari eskoziarra Hitlerren arrakastaren gakoak azaltzen ahalegindu da enegarrenez *The Dark Charisma of Adolf Hitler* liburuan. Reesen arabera, karisma ez doa beti ezaugarri positiboekin lotuta, eta Hitlerrek transmititzen zuten “gorroto ahalmen mugagabea” giltzarri izan

zen nazien goraldian. Gainera, karisma ez omen dago beti norberaren baitan, besteen begietan baizik, eta, hortaz, 1930eko hamarkadako Alemaniaren egoera funtsezkoa izan omen zen urte batzuk lehenago Hitler ero irrigarritzat zuten herritarren babes leiala lortzeko. ■